

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jose Zufiaurre Goia

*Beasain, Gipuzkoa
(1934)*

Aurkibidea



Biografia



Beasainen jaiotakoa 1934ean, aita Zaldizurreta baserrikoa zen eta ama Zeraingo Inurritegi baserri-errotakoa. Ospitaleko mojekin ikasi zuen lehendabizi, eta geroago fraideekin 12 urte bete zituen arte. Horren ondoren, Saturrarango Seminarioan egon zen 3 urte t'erdian. Betidanik izan du kezka humanistikoa: euskal gaietarako eta etnografiarekiko zaletasuna aitarengandik jaso eta seminarioan indartu zitzaion. On Joxe Miguel Barandiaranekin hartu-eman sendoa izan zuen eta hark sortutako Etniker taldean hasi zen berehala lanean; Gipuzkoako lantaldearen arduraduna izatera iritsi zen. Hainbat ikerketa eta lan burutu ditu eta Euskal Herriko Atlas Etnografikoan ere parte-hartze zuzena izan du. Beasaingo lan monografikoaren egilea ere bada.

Zintak

BEA-001

- **Proiektua:** Beasaingo euskara eta etnografia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Mendiguren Elizegi, Xabier
- **Data:** 2005-05-16
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar

BEA-002

- **Proiektua:** Beasaingo euskara eta etnografia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Mendiguren Elizegi, Xabier
- **Data:** 2005-05-16
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** MiniDV

Pasarteak

1. Garai hartan seminariora joandakoak asko izan ziren

- **Erref:** BEA-001/003
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:03:15. **Bukatu:** 00:04:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Seminarioa
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

Ospitaleko mojekin ikasi zuen lehendabizi (haur hezkuntza); geroago fraideekin ikasi zuen 12 urte bete zituen arte. Ondoren Saturrarango Seminarioan hiru urte eta erdi egin zituen.

2. Zintzotasuna eta euskaltzaletasuna piztu zitzaizkion seminarioan

- **Erref:** BEA-001/004
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:04:28. **Bukatu:** 00:06:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Seminarioa

Laburpena:

Kezka humanistikoa noiztik duen. Euskal gaietarako zaletasuna eta maitasuna bertan piztu zitzaion. Don Andoni Basterretxea irakaslearen inguruko gogoetak. Beasainen ez zegoen euskal kutsurik; herria zeharo erdaldundua zegoen. Beraiek etxean euskaraz ikasi zuten aita oso zorrotza izan zelako kontu honekin.

3. Aitaren zaletasunak: ehiza eta soinua

- **Erref:** BEA-001/005
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:06:45. **Bukatu:** 00:08:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aita soinujolea zen. Inguruko mendi-erromerietan jotzen zuen; Lierniko erronomia. Zeraingo gazteak bertara joaten ziren. Aitaren zaletasun nagusiak: ehiza eta soinua.

4. Aitak eskopeta berreskuratu zueneko

- **Erref:** BEA-001/006
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:08:30. **Bukatu:** 00:12:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak

Laburpena:

Joxek etxean duen eskopetaren inguruko azalpenak. Gerra garaian, eskopetak konfiskatu egin zituzten eta aitak bere eskopeta nola berreskuratu zuen kontatzen du.

5. Beasaingo alkateak ehiztariak guardian jarri zituen gerra garaian

- **Erref:** BEA-001/007
- **Iraupena:** 0:04:50. **Hasi:** 00:12:15. **Bukatu:** 00:17:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

Laburpena:

Aita 1905ean jaiotakoa zen. Gerra Zibila hasi zenean, Beasainen sozialistak zeuden Udalean. Víctor Bernedo zegoen alkate. Udalak ehiztarietara deitu zien eta guardia egiten jarri zituen ospitalean eta eliz atarian. Beasainen kanpotik etorritako langile asko zeuden, eta tartean sozialista asko. Altsasun Francoren tropek zer egin zuten ikusi ondoren, ikaratu eta ihes egin zuten. Aitak eta beste beasaindar batzuek gerratik ihesi egin zuten ibilbidea azaltzen du. "Subille".

6. Gudariei Bilbo defendatzera joateko deia egin zitzaien

- **Erref:** BEA-001/008
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:17:05. **Bukatu:** 00:19:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Eusko Jaurlaritzak gudariei egindako deia; Bilbo defendatzera joateko eskaera. Beasaindik ihes egindako batzuek Bilborako bidea hartu zuten. Gosea. Bilbo erori zenean, Urduñako kartzelara eraman zuten. Bitartean, ama-umeak Zerainera joan ziren bizi izatera. Ama Zeraindik Bernedoren lantegira joaten zen egunero bizikletan. Guardia Zibilek salbokonduktoa eman zioten.

7. Gerra ondorengo samina

- **Erref:** BEA-001/009
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:19:35. **Bukatu:** 00:20:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Aitaren gerra ondorengo samina, desilusia. Euskaltzaletasuna gorde eta bizi guztian mantendu zuen. Autodidakta.

8. Aralarren lan etnografikoak egin zituen; Jose Migel Barandiaranekin harremana

- **Erref:** BEA-001/011
- **Iraupena:** 0:06:14. **Hasi:** 00:21:30. **Bukatu:** 00:27:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Kultur transmisioa

Laburpena:

Etnografia gaietan nola sartu zen azaltzen du Joxek. Aitak piztu zion zaletasun hori. Aralar; bertako elementu etnografikoen bilketa. Kartografiari buruzko ezagutzak. Testigantzen bilketa. Joxe Migel Barandiaranekin hartu-emanak. Arantzazuko Ama Birjinaren agerpenaren inguruko pasadizoa. Aralarko pilotalekuak.

9. Joxe Miguel Barandiaran eta artzainen pilotalekuak

- **Erref:** BEA-001/012
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 00:27:44. **Bukatu:** 00:31:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

Laburpena:

Joxe Migel Barandiaranek apaiz ikasketak non egin zituen. Orduko kontuak. Aralarrera egindako irteera; artzainekin harremana. Pilotalekuaren berri nola izan zuten. Joxe Miguel gerra garaian ihes egin eta Iparraldeko artzain batzuekin hizketan bertako pilotalekuak non zeuden aipatu zioten. 1953an itzuli zenean, beste lan batzuetan hasi zen. Salamanca; Iruña. Joxe Zufiaurrek Barandiaranen esanei jarraituz, bederatzai pilotaleku aurkitu zituen Aralarren.

10. Etniker, etnografia-taldeak

- **Erref:** BEA-001/013
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:31:03. **Bukatu:** 00:33:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Bestelako kontuak » Historia orokorra
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Barandiaranek probintzia bakoitzean Etniker taldeak sortu zituen. Jose Zufiaurre Etniker taldeen batzarrera gonbidatu zuen. Urte hartako batzarra Urkiolan egin zen eta elkarrekin joan ziren. Euskal Herrian aurkitu zen lehenengo trikuharria. Karmele Goñi; Jose Letona; Fermin Leizaola. Orduan hasi zen Joxe Beasaingo lan monografikoa egiten.

11. Beasainen lan etnografikoa egin zuen Barandiaranen laguntzaz

- **Erref:** BEA-001/014
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:33:38. **Bukatu:** 00:35:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Bestelako kontuak » Historia orokorra

Laburpena:

Beasaingo lan monografikoa. Larunbatero Joxe Migel Barandiaranekin elkartzen zen. Barandiaranen lan-metodologia.

12. Euskal gaien inguruko interesa; euskal kantutegia

- **Erref:** BEA-001/023
- **Iraupena:** 0:04:26. **Hasi:** 00:49:21. **Bukatu:** 00:53:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Kultur transmisioa
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Seminarioa

Laburpena:

Euskal gaien inguruko interesa aitak piztu zion eta seminarioan indartu egin zitzaion. Seminarioan, euskal kantak ikasi zituen. Euskal kantutegi baten bilduma egin zuten bertan. Hainbat kantutegi erakusten ditu.

13. Seminarioan ikasi zituen euskarazko kantak

- **Erref:** BEA-001/024
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:53:47. **Bukatu:** 00:55:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Seminarioa

Laburpena:

Euskal Kantutegia Seminarioan biltzen hasi zen. Aurretik ez zuen euskal kanturik ia ezagutzen. Eskolan fraideekin ibili zen eta dena erdaraz ikasten zuten. Heziketa gogorra.

14. Seminarioan politika konturik ez; euskal kultura, berriz, bai

- **Erref:** BEA-001/027
- **Iraupena:** 0:04:12. **Hasi:** 00:55:50. **Bukatu:** 01:00:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Seminarioan abertzaletasunaz ez zen hitz egiten. Politika alde batera geratzen zen. Kulturalki asko jantzi omen zen seminarioan egondako garaian.

15. Barandiarenek irakatsi zion bigarren lezioa

- **Erref:** BEA-001/029
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 01:01:28. **Bukatu:** 01:02:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Joxe Migel Barandiaranengandik jasotako bigarren lezioa: erretiroan dagoenak gizartearengandik jasotzen duen pentsioaren truke, gizartearentzat lan egin behar duela.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-05-18

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com